

‘Marieluts’ haurtzaindegian matrikulatzeko, maiatzaren 1etik 15era

■ Sehaskako 16 haur, bi urte arteko 24 eta 2 urteko beste 24 hartuko dituzte, aurten Marielutsen ■ Eskaria hiru aldiz haundiagoa izan ohi da.



Ume koadrila Marielutsen, irakaslearekin txintxo asko.

SEME-alabak Marilutsen matrikulatu nahi dituenak, maiatzeko lehen bi asteetan du izena eman beharra. Betetzeko dauden tokiak jakinak dira: seaskako umeentzat 16, bi urte artekoetan 8 (beste 16ak beteak daude dagoeneko) eta bi urtekoetan 4 (beste hogeik beteak daude). Eskaria askoz ere haundiagoa izaten da urtero, eta hori dela-eta lehentasun zerrenda egiten dute aurretik zein hartu jakiteko.

LEHENTASUNAK

1) Gurasoetako bat Hernanin errolatua egotea; gutxienez

urte betez. Haurra Ongintza bidez iritsia izatea.

2) Gurasoetako bat Hernanin errolatua egotea; gutxienez urte betez. Haurrak senide bat bertan matrikulatua izatea.

3) Gurasoetako bat Hernanin errolatua egotea; gutxienez urte betez (zozketa egingo da lekuak osatu arte. Gainerakoekin zerrenda egingo da, hutsik gelditutako lekuak osatzeko).

4) Gurasoetako bat Hernanin errolatua egotea; gutxienez 6 hilabetez.

5) Beste herrietatik etorritako haurra izatea. □

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

■ Eskabide orria, ondo beteta.

■ Familiako enrolatze (zensoa) agiria.

■ Haurrak hartutako txertoen agiria.

■ Iazko PFEZ aitorenaren fotokopia. Egin ezean jasotako diru sarreraren deklarazioa.

■ Familiako liburuaren fotokopia.

■ Kontu korronte zenbakia.

■ Behar den kasuetan Ongintzako txostena.

■ FUTBOLA -HIRUGARREN MAILA- Hil hala biziko bost partidu; gaur lehenengoa

■ Lemoan jokatu du Hernanik liderraren kontra.



Txuriberdeak saiaturko dira Lemoakoen porteria zulatzen.

DENBORALDIA bukatzeko gero eta partidu gutxiago gelditzen dira, eta Hernanin taldea gero eta azpirago dago sailkapenean. Gaur Bizkaian jokatu du liderraren kontra.

ATZETIK HIRUGARREN Hernani 18garren dihoa 33 punturekin. 16garrena San Pedro da 35ekin eta 15garrena So dupe 36rekin. Hiru talde jeltxiko dira aurten. □

Greba orokorrak komertzio eta lantegi txiki asko itxi zituen Hernanin

■ Lantegi haundietan, berriz, normal egin zuten lan ■ EH-k “aldarria zabaltzea lortu” dela dio.

EH-k deitutako greba orokorrak erantzun zabala izan du Hernanin. Komertzio eta lantegi txiki askok itxi zuten eta udal zerbitzuek ere greba egin zuten. EH-k egin duen balorazioaren arabera, “lortu da aldarri bat kaleratu eta besteengana iristea”.

an, berriz, 1200 lagun izan ziren EH-k berak Hernani mailan egindako deialdian.

“EH-K MEHATSATZEKO GAITASUNA HERNANIN”

EA-EAJ-k Kronikari esan dionez, “Grebak komertzioan eta lantegi txikietan izan duen eraginak erakusten du EH-k edo MLNV-k Hernanin beste lekuetan baino mehatatzeko gaitasun haundiagoa duela. Eta horren adibide da dendarietxikimendu eske bidalitako gutuna”. □

MOBILIZAZIOAK

Asteartean bi mobilizazio deialdi izan ziren. EH-k emandako datuen arabera, eguerdian 1000 lagun inguru izan ziren LAB sindikatuak deitutako eskualdeko manifestazioan. Iluntze-

Molotoff irratan ez dago programarik astearterarte

■ Aste Santuko oporrak direla-eta, jai hartuko dute Molotoff irratan ■ Asteartean ekingo diote irratisaioei.

**HERNANIKO
KRONIKA**

egunero
INTERNETEN
www.hkronika.com



mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI



GALARRETA JAIALDI
FRONTOIA

Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua ZALAKAIN-ASTIBIA / ITURRALDE-GAZTELU
- ⇒ 2. partidua EZKURRA- TXIKURI / ALTUNA-EIZAGIRRE
- ⇒ 3. partidua URRETABIZKAIA I-ETXABE / BITORIA-AIZPURU
- ⇒ 4. partidua KALONJE-ZUBELDIA / LEZEA-URRETABIZKAIA II

Beste bi amurrai ikaragarri atera dituzte Latxen

■ Bat 2,8 kilokoa da; bestea 1,3 kilokoa ■ Lehengo astean 2,7 kilokoa atera zuten.



Mikel Otegi eta Joxi Barrena amurraiekin; Xabier sokari eusten.

BADIRUDI Latxe inguru horretan ondo jadako amurraiak bizi direla, azken aldian behintzat. Aurreko astean 2,7 kiloko amuarraia atera bazuten ere, larunbat iluntzean marka hori hautsi zuten, leku berberean. 20:00ak aldera Mikel Otegi 47 zm eta 1,3

kiloko amurraia atera zuen. Handik orduerdia, Joxi Barrenak haundiagoa, 62 zm eta 2,8 kilokoa.

Aurreko astean ere festa polita ibili zuten 2,7 kilokoa ateratzeko; orduko esperientziak asko erreztu zizkieten lanak oraingo arrantzaleei.

FRUTA KAJAN

Amuarraia nekatu arazita gero, mutur banatan sokaz lotutako fruta kaja batean atera zuten (Latxeko koskatik erriora 4 bat metro baitaude). 20-25 minutu behar izan omen zituzten amuarraia uretatik ateratzeko. □

■ HERRIKO XAKE TXAPELKETA

Isidro Esnaola herriko xake txapeldun

■ Magi gelditu da bigarren ■ Sari banaketa: Aste Santuak pasa eta gero.



Isidro Esnaola (eskubian) eta Jon Eizmendi finalaurreko partida jokatzen.

ISIDRO Esnaola *Isidrov*-ek irabazi du aurtengo Xake Txapelketa. Hernaniar honek Errusian egin ditu ikasketak eta hango xake kulturak balio izan dio gainontzekoak men-

dean hartzeko. Txapelketa hau joan den azaroan hasi zen 40 parte hartzaileekin. Probako fasea eta gero, hiru kanporaketa eta finala izan ditu. Txapelketako partidak Kitto, Txema,

Bodega eta Aker tabernetan jokatu dira. Txapelketa bera ere, hasieran Aker tabernan antolatzen zen, baina, gero zabaldu eta herriko txapelketa egitea erabaki zuten. □

■ TXIRRINDULARITZA

Euskal Herriko Itzulia bihar pasako da Hernanitik

■ Rekaldetik etorri eta Urnietara joango da ■ Bi alditan pasako da: 11:18etan eta 11:54etan, Axalan.

EUSKAL Herriko itzulia bihar pasako da Hernanitik, Lekunberritik Lasarterako 100 km-tako etapan. Ostiralekoa da azken etapa, arratsaldean Lasarte-Lasarte 10 Km-tako erlojupekoa jokatu bukatuko baita. Txirrindulariek bi buelta emango dizkiote Lasarte-Hernani-Urnieta-

Andoain zirkuitoari. Antolakuntzak aurreikusitako ordutegiaren arabera, 11:18 eta 11:54etan pasako dira txirrindulariak Axalako kruzetik.

Txirrindulariak aldapa gorra ikusi nahi dituenak, berriz, Xoxokara joan beharko du (atzeko bidetik). Hor 11:30etan eta 12:05ean pasako dira. □

■ ARRAUNA -BATELAK-

Tanda irabazita 5garren gelditu ziren jubenil mutilak Gipuzkoako Txapelketan

■ Irabazle Orio; bigarren Zarautz ■ Neskek istripua izan zuten bidean eta ezin izan zuten parte hartu.

ITXURA ona eman zuten Hernaniko jubenil mutilek lehengo igandean, bateletako Gipuzkoako txapelketan, San Pedroko uretan. Bostgarren gelditu ziren, atzetik Getari, San Pedro eta Fortuna zituztela.

boraldiko azken proban parte hartu.

ORAIN TRAINERILAK

Nagusien mailan 2 trainerila ateratzeko asmoa da aurtengoa, mutiletan. Apirilaren 29an jokatu dute Zumaian. Jubeniletan, berriz, jende nahikorik ez, eta daudenak Zarauzko taldean hartuko dituzte, eki-poa osatzeko. □

■ PELOTA -UDABERRI TXAPELKETA-

Erroizenean-Oteiza txapeldun 22-17 irabazita

■ Garikoitz Erroizenea hernaniarrak txapelketa ona egin du Oteiza zarauztarrarekin.

UDABERRI Txapelketako finalak jokatu ziren lehengo asteburuan. Afizionatuetan *Erroizenea-Otegi* Zubizarreta-Astigarragari irabazi zioten. Irabazi arren Garikoitzek "ez nuen oso partidua ongi egin, bezperan Elgetan partidua gogorra jokatu nuen-eta" iritzi dio. Garikoitz Elgetan laurdiko txapelketa jokatzen ari da, eta dagoeneko 2 partidua irabazi ditu.



Garikoitz Erroizenea.

la 22-16 galdu zuten Azkoitiaren kontra, partidua oso gogorrean. Hernaniarrek meritu handiko bigarren postua lortu dute, hala ere. □

JUBENILETAN JUSTU Alvarez-San Sebastianek fina-

Zapa kaleko murala borratu dute, hirugarren aldiz

■ Ekain Ruizen oroimenez eginiko murala da ■ Astearte iluntzean borratu zuten.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 557750
- Jokalariei anonimoak 943 331103

☼ FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri, 11 ☎ 943 553582
- Gauetz: Aizpuru Latxunbe Berri, 11 ☎ 943 553582